

Erakundeek Artziniegako Etnografia Museoa martxan jartzeko finantziazioaren inguruan akordioa lotu dute

Artziniegako Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaularitzak Artea Elkarteari 2019rako finantziazio guztiaren ardura hartzea eskaini diote

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 20a. Artziniegako Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaularitzak akordioa itxi dute herri honetako Etnografikoa Museoaren 2019rako finantziazioa bermatzeko, hau da, bere ateak berriro irekitzeko. Azken egunetan zehar hiru erakundeek bilera ugari izan dituzte honen inguruan, zentro hau funtzionamenduan jartzen duen Artea Elkarteari bilerak izateaz gain, horrela museoa hau irekitzeko adostasuna lortuz.

Horrela, foru gobernuak eta Eusko Jaularitzak 35.000 euro bana jartzeko beharra ikusi dute, museoaren funtzionamendu eta gestio gastuak ordaintzearen. Laguntza honetaz gain, bideragarritasun plan bat diseinatzea adostu dute eta hurrengo bi hilabeteetan martxan jartzea espero dute. Bideragarritasun planak derrigorrean aztertu beharko ditu behar juridikoak, kudeaketarekin lotutakoak eta finantzaketakoak, baita hezkuntzakoak eta museografikoak ere, erakusketa gunek aurrera egitea eta XXI. mendeko museo izatera iristea lortzeko.

Bideragarritasun Plan honek museoaren behar ekonomiko zehatzak ezagutzera lagunduko du, honela bi erakundeen laguntza hau nahikoa den jakinez eta behar gehiagoren beharra izatekotan, Artziniegako Udalaren laguntzaren konpromisoarekin.

Plan honen garapena Artea Elkartearen parte hartze zuzenarekin egingo da, urte hauetan zentroaren gestioan izan duten esperientzia gehituz eta hurrengo urteetan museoak jarraipena izan dezan beharrak argituz. Hau Artziniegaren garapen ekonomikorako eta bere biztanleen onurarako ezinbestekoa uste dute erakundeek.